

BERRIGARA


7. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1996, martxoak 15



Maria Josefa Ganuza

Monzon bihotzean

OPEL



TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnok: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Gipuzkoa)

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:

TAKOLO AUTOAK
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa)

PEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.

ALTZARIAK • DEKORAZIOA

UGARTE

AROZTEGIA

San Juan auzoa (Barruti) Telefonoa eta Faxa: 76 54 91



Leiho
termoakustikoak
Horma armairuak
Ateak
Altzariak



GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIONDO
OTALORA
RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
☎ 76 03 97 • Faxe: 76 08 19

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarte.
Masterreka, 13 Bergara.
Tinoa eta Faxe: 76 08 19

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil
Mikel Elkorobereibar
Jone Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola

Maripi Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza

Miguel Angel Elkorobereibar

Alex Labaien

Komikiak:

Bittor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Unai Azkarate

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

4.000 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

IGNACIO RUIZ DE ALEGRIA *Bultzlan Consultingekoa*

- Nolako enplegu ekimenak aztertu dituzue aste honetako jardunaldietan?

- Oso ideia interesgarriak izan dira. Batik bat zerbitzu sektoreko ideiak aurkeztu dira: dendak, estudio txikiak, publikoari zuzendutako iharduerak... Edozein planteamendu industrialek inbertsio haundia eskatzen du eta gazte jendeak ez du ahalmen finantziero haundirik, horregatik zerbitzuetara jotzen da.

- Zerbitzuek daukate etorkizunik onena?

- Euskadin industriak garrantzi haundia izaten jarraitzen du eta nik uste momentu onean gaudela industrialdeen agerpenarekin. Baina aberastasuna sortu ahala zerbitzuak sortzen dira. Eta bestalde



industriaren osagarri diren zerbitzuak (aholkularitza, informatika...) ere badaude.

- Zenbat lagun izan dira jardunaldietan?

- 20 bat lagun etorri dira eta enpresa ideiak aztertu ondoren, hori mar txan jartzeko tramiteak eta lehen pausuak landu ditugu. Jendeak parte hartu du eta perspektiba onak ikusten ditut.

"Zerbitzu sektoreko ideiak aztertu dira enplegu ekimeneko jardunaldietan"

I T U R R I O N E T I K

Bartzelona eta Ajaxek Agorrosinen jokatu dute Aste Santuan

Real Sociadetek antolatzen duen gazte mailako nazioarteko futbol txapelketaren barruan, Barcelona eta Ajax taldeen arteko futbol partidua izango da datorren apirilaren 7an, arratsaldeko 5etan, Agorrosinen. 16. edizioa izango da eta aurten ere Realak talde bikainak ekartzea lortu du. Apirilaren 4tik aurrera Chelsea, Ajax, Girondins, Real Madris, Barcelona, Osasuna, Gipuzkoako selekzioa eta Realak izango dira lehian Gipuzkoako futbol zelai ezberdinetan. Ohizkoa den bezala finala Aste Santuaren amaieran, apirilaren 8an, jokatu da Anoetako estadioan.

E S A N D U T E

"Hala ere, nere ustez, bere adin ingurukoengandik ez zuen izan merezi zuen adinako harrerarik, ez suerterik, gutxiago oraindik hizkuntza beti gerorako uzten dutenen aldetikoen begiramen egokirik. Bere buruarentzako atsedena

jaioterrian nahi zuen, 'Urrundik' liburuan zioenez:

'Bergaran jaioa naiz, hantxe nahi nuke hil, zahar egin arte bertan bizi izanda gero'. Guztiz ez zuen izan gogozko zoririk. Baionan hil zen 1981eko martxoaren 9an, hirurogeita hamar urte laster

betetzear zegoela, baina bere gogoz agertu zuenaren parte bat bete zen gorpua Bergaran

ehortzean. Urte zail haietan

Telesforo Monzon gizon jatorrarekin harremanak izan genituenontzat


beti oroitaro izango da bizi garen artean"

JUAN SAN MARTIN
Idazlea
ARGIA

**HOLA, ¿ESTAS SOLA?**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

**LA RED**

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).

**SOSPECHOSOS HABITUALES**

Osteguna (Zine-kluba): 20.00.

Zinea

▼▼ **Iciar Bollain** aktoreak (*El sur, Tierra y libertad*) zuzendari modura eginiko lehen filmeak publikoaren saria irabazi zuen Valladolideko azken zine jaialdian. Bertan 20 urteko bi neska gazteren (**Candela Peña** eta **Silke**) arteko harremana kontatzen zaigu; elkarrekin bidaia bat egingo dute *Olaf* errusiarraren laguntzaz... **Julio Medemek** gidoian parte hartu du.

▼▼ **Angela Bennetek** (**Sandra Bullock**) informatika munduan egiten du lan eta, kasualitatez, Internet programari esker, Energia Atomikoaren Batzordearen datu basea ezagutu ahal izango du. **Angela** programa ezagutu bezain laister korrupzio sare batean eroriko da... **Irwin Winklerek** zuzenduta eta **Jeremy Northam** eta **Dennis Miller** aktoreak errepertoan.

▼▼ **Bryan Singerek** zuzendutako filme honetan, **Stephen Baldwin**, **Gabriel Byrne**, **Chazz Palminteri** edota **Kevin Spacey** dira errepertoan. Kujan polizia (**Palminteri**) Los Angeleseko portuan gertatutako sute bat ikertzen ari da eta badirudi Keaton polizia ohia (**Byrne**) dagoela sutearen atzean.

Deiak

▼ **Eski irteera.** Baqueira Beterera eski irteera antolatuta du Pol Polek martxoaren 23 eta 24rako Argibideak Pol-Poleko bulegoetan edota 76 48 51 telefonoan.

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean 18.30etan Seminarioan.

▼ **Old Boys Quintet** jazz taldea gaur 11etan Elgetako Haizea tabernan.

▼ **Aranzabal Lagunartea**ren bilera bihar larunbata ordubatean Zabalotegiko Dorrepean.

▼ **1951**ko Gipuzkoako kintoen anaiarteko eguna martxoaren 31n Zumarragan. 12.30etan meza Asunción elizan eta ondoren bazkaria Etxe-Berrin. Izen ematea 88 23 07, 67 19 26 eta 21 12 01 telefonoetan.

Ogia

▼ **Igandea 17:** Konde.

FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 15:** Estella/Español.
- ▼ **Larunbata 16:** Mozos/Corcuera.
- ▼ **Igandea 17:** Mozos/Irizar.
- ▼ **Astelehena 18:** Camacho/Amez.
- ▼ **Asteartea 19:** Puy/Ruiz.
- ▼ **Asteazkena 20:** Guallar/Morale.
- ▼ **Osteguna 21:** Estella/Azkoaga.

SIRIMIRI*jatetxea*PINTXO BEROAK,
EGUNEKO MENUA, KARTA.

Barrenkale, 3 ☎ 76 59 19

Angiozar, 37

☎ 76 27 82

**ESKAINITZA BEREZIA:**
Solariuma, 10 saio: 5.000 pzta.

Era guzietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimizen ditugu.



zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzten ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorentzo, 7 behe. ☎ 76 50 39

Jose Ramon Lazkano

Udal Musika Bandako kiderik beteranoena

Udal Musika Bandak kontzertua eskeiniko du igandean 12.30etan Novedades aretoan, 1812 (Tchaikowsky), *Songs and dances* (Purcell), *La bella y la bestia* (Menken) eta *Lau urte aroak* (Franco) joko dituelarik. Jose Ramon Lazkano Bandako kiderik beteranoenarekin izan gara berriketan.

- Zenbat urte Bandan jotzen? Asko aldatu da Banda hasi zinetik?

- 40 urte pasa egin ditut, 14 urterekin hasi bainintzen. Ordutik bi zuzendari ezagutu ditut, Miguel González Bastida eta honen semea, Alfredo. Denbora luze honetan, normala denez, Bandak gorabeherak izan ditu: hasierako arrakastaren ondoren momentu txar bat izan zuen baina guttiz errekuperatu dela esango nuke, gaur sekula baino jende gehiago gabilta eta. Guztira 69 lagun ari gara Bandan jotzen.

- Saxofoi baritonoa jotzen duzu. Nola aukeratu zenuen instrumentu hori?

- Nolabait zuzendaria-



"Gorputzak aguantatzen duen bitartean jarraitzeko asmoa daukat".

ren eraginez hasi nintzen saxofoi sopranoarekin, orduan ez baitzegoen instrumentu aukeratarik. Politia zen ikasteko eta hasieratik gustatu zitzaidan. Ondoren saxofoi altua jo nuen, tenorea jarraian eta azkenik saxofoi baritonoa.

- Zeintzuk dira zure

pieza eta konpositore gogokoenak?

- Denetik gustatzen zait, pieza alaiak eta bestelakoak ere bai. Konpositoreekin beste horrenbeste gertatzen zait baina norbait destakatzekotan Beethoven aukeratuko nuke, asko gustatzen zait. Hala ere jartzen dutenare-

kin konformatzen naiz.

- Zein da Bandan jotzeak ekarri dizkizun oroitzapenik onenak?

- Egindako lagunak. Astean bi bider egiten ditugun entseuetara ere gustora joaten naiz oso giro ona egoten delako.

- Noiz arte jarraitzeko asmoa?

- Ez dakit, gorputzak aguantatzen duen bitartean jarraitzeko asmoa daukat...

- Familiar musikoak izanda, elkarri kritikarik egiten diozue?

- Ez pentsa, musikari buruz oso gutxi hitzegiten dugu. Asier semeak saxofoi altua jotzen du Bandan eta Amaia alabak, berriz, txistua Udal Txistulari Bandan. Neuk animatuta hasi ote ziren? Bai, animatuta baina erdi behartuta ere bai. Dena den asko gustatzen zaie, gustora gaude hirurak.

- Nola ikusten duzu Bergarako musikarien harrobia?

- Oso harrobi ona daukagu. Aurreko urteekin konparatuz diferentzia haundiak daude, orain solfeoarekin etabarrekin askoz hobeto gertatuta etortzen dira. Udal Banda ez dago arriskuan.

AGOITZ

Tapizdenda

San Lorentzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23

iRUDI

**Erlojudenda
Bitxitegia**

Ibargarai, 2
☎ 76 51 65

ARREGI

**Eraikuntza
materialeak**

Biltegia Tellerian, Labegaraian.
Tfnoa: 76 27 93

"Moziok", "idatziak"...

Argi dago intsumisioa Bergarako herritarren gehiengoaren artean gauza on bat bezala ikusita dagoela. Jendeak esaten du soldaduzkara inor ez doala, harro dagoela postura horrekin.

1995eko apirilean, orain dela urtebete, mozio bat sartu zen udaletxean, Botaren ize-nean. Abenduan, berriz ere antzerako mozio bat sartu zen. Udalak ez du ezer egin.

Ondoren hau gertatzen da:

Botak batzarra egiten du PNVrekin.

Botak batzarra egiten du EArekin.

Botak batzarra egiten du HBrekin.

PSOEk gartzelan ditu hainbat intsumisio, ez dago batzarrik.

Ondorioz, EAK eta HBk udal intsumisio bat nahi dute eta PNVk ez du hori nahi, nahiz eta intsumisioaren "alde egon".

Hau dela eta, otsailaren 13an udaletxean "idatzi" edo "mozio" bat sartzen da, udal intsumisio bat bultzatu nahian. "Paper" hau HB eta EAKo zinegotzien sinadurarekin doa. Zinegotziak batuz gero, 9 ematen du, beraz, herri honen gehiengo.

Martxoaren 6an irakurtzen dut DVko eta Egineko Bergarako kartak, bertan HBk salatzen du ez direla hainbat "idatzi" edo "mozio" aztertu.

Alkateak burokrazian oinarritzen du erantzuna: "Ez dira "moziok", "idatziak" baikik."

"Moziok" ala "idatziak", berdin zait, arazoak berdin-berdin jarraitzen du, alkateak ez du onartu nahi gauzak konpondu egin behar direla, alde batera ala bestera, baina konpondu.

Hemendik eskatzen dudana gauza bakarra zera da: Botak sartutako "mozio", "idatzi", "paper" edo nahi duzuna tratatzea lehenbailehen eta noski, Senideak edota beste talde-enak ere onartzea.

Erantzun mesedez eta eguna ipini Plenorako. Bestela, hau al da demokrazia? Ez dakit ba, gainera, intsumisiook ezin dugu botoa eman.

X. M. (NAN: 15.380.759)

Jarrera faxistak

Begarako EAJ-PNVk, iritzi publikoaren aurrean salatu nahi du, hilaren 10ean, ordu txikietan, Victoriano Gallastegi Alkate Jaunari telefono bidez egindako mehatxu anonimo eta koldarra.

Berriro ere, jarrera faxisten adibide bat agertu zaigu "pertsonea" arbuigarri baten bitartez.

Idatzi honen bidez, gure, eta uste dugu herriaren gehiengoaren, elkartasuna eta laguntasuna adierazi nahi diogu Alkate Jaunari.

Begarán, 1996ko martxoaren 13an.

EAJ-PNVKO BERGARAKO URI BURU BATZARRA

Zinean hotzak aidean

Aurreko ostiral batean zinera joan nintzen Forum Cinematographe taldeak iragarritako "Sed de mal" pelikula ikustera. Giroa aproposa zen zinera joateko (hotza egiten zuen kalean) eta horrez gain pelikula hori ikusteko gogoia neukan. Baina zinera joan eta pelikula hasi orduko sekulako hotza somatu nuen. Berogailurik ez!! Horrela ez dago pelikula bat disfrutatzerik eta erabat haserretu nintzen Novedadeseko arduradunekin. Irteeran nire kexa azaldu nien baina ez dut uste kaso haundirik egin zidatenik hurrengo batean nire lagun batek beste hurrenbeste gertatu zitzaiola esan zidan eta.

Novedadesekoei berogailua beharrezkoa den guztietan jartzea exijitu nahi diet, takilan nahikoa kobratzen digute eta. Ez dut uste zinea bultzatzeko lan haundirik egiten dutenik berogailua ez jartzean. Horrela jarraituz gero, ikusleak galduko dituzte eta gero ez daitezela kejaratu bergararrak zinea ikustera beste herrietara joaten badira.

M.G. (NAN: 15.334.258)

Zuzenketa

Otsailaren 23ko (224. alea) Berrigaran argitaratutako erreportaian -Xipizaro ludotekari buruzkoa-, asteburuetan ludotekara doazenen 1.720 pzta. hileko ordaintzen zutela adierazten genizuen. Zenbakia oker dago eta 1.720 pzta. izan beharrean, 720 pzta dira. Xipizaro ludotekara astebukaeretan joaten direnek 720 pzta. ordaintzen dute hileko.

Tiira biraka GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



◆ **Bergarar bat**
San Josepen hil

José Miguel Errasti 33 urteko bergararra astelehenean hil zen Arrasateko San Josepeko kanteran 30 m. inguruko altura batetik jausi ondoren. Istripua arratsaldeko 6ak aldera gertatu zen eta oraindik ez dira horren arrazoiak zehaztu. Gurutze Gorriko kideek Arrasateko Ospitalera eraman zuten José Miguel E.A. eta bertako medikuek bere heriotza konfirmatu zuten. Jose Miguel E.A. Gasteizko Las Nieves Erresidentzian internatuta zegoen. Bere aldeko hileta elizkizunak asteazken arratsaldean izan ziren Bergarako Santa Marina elizan.



Asteleheneko Plenoan HB abstenitu egin zen alkateak jasotako mehatxuak aztertzerakoan.

Alkatearen kontrako mehatxuak salatu zituen Udalbatzak Plenoan

Asteleheneko ez-ohiko Plenoan, Udalbatzak Victoriano Gallastegi alkateak telefonoz jasotako mehatxuak salatu zituen. Alkateak berak azaldu zuenez, igandean, goizeko 3.30etan dei bat jaso zen bere etxean. Alkatearen alaba batek telefonoa hartu ondoren, ezezagun batek "Victoriano, hijo de puta, las vas a pagar todas" esan zion. Asteleheneko Plenoan, alkateak mezu hau bidali nahi izan zion telefono deia egin zuenari: "bere amak bizitzeko suertea baldin badu, berarengan pentsatzeko, nik ez dut hitz horrekin deituko eta. Guztiak or-

dainduko ditudala esaten du eta ni, nire gestioagatik, Bergarako herriaren iritziarren menpe nago bakarrik. Bitartean orain arte bezala lanean jarraituko dut". Plenoaren salaketa publikoa agertuz eta bergararren solidaritatea eskatuz amaitzen da testoa. EAJk, EAK eta PSE-EEK baiezko botoa eman zioten eta HB abstenitu egin zen.

Jesus Mari Garitanok (HB) azaldu zuenez, "gai desatsegina da baina badirudi lehen eta bigarren mailako biztanleak dardela, ekainaren 27an antzerako mozio bat ekarri baikenuen Plenora

eta ez zen aztertu [aipatu ez bazuen ere Mikel Zubimendiren kontra agertutako paskinei erreferentzia egiten zuen]. Bestalde, honelako mehatxu asko da ezer egiten".

Bestalde, Plenoaren lehendabiziko puntuan, udal langile batek ezarritako administrazioarekiko errekurtsioan Udala defendatzeko Jose Manuel Gandasegi abokatua izendatu zuten.

Udal langile batek bere lanpostuari jarritako maila dela eta errekurtsioa aurkeztu du eta juizioa euskaraz izatea eskatzen zuten.

HILDAKOAK

- Alberto Elkorobarrutia Urien**
Martxoak 8, 70 urte
- Pedro Barrutia Arenaza**
Martxoak 10, 70 urte
- José Miguel Errasti Atorrosagasti**
Martxoak 11, 33 urte
- José Dacosta Díaz**
Martxoak 12, 77 urte

JAIOTAKOAK

- Iker Hiriart Zabaleta**
Martxoak 4
- Izar Morillas Igartua**
Martxoak 5
- Ainhoa Azkarraga-Urizar Urzelai**
Martxoak 8
- Beñat González Inurrategi**
Martxoak 11

**JAUNARTZEAK, EZKONTZAK,
DESPEDIDAK, KARTA,
EGUNEKO MENUA,
LOGELAK.**



ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta BERGARA.
Telefonoak 76 20 07 - 76 42 57

◆ Ibilgailuen zerga

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zerga kobratzeko borondatezko epea ekainaren 8ra arte izango da zabalik Udaletxeko Kontuhartzaitzetan.

◆ Nortasun Agiriak

Nortasun Agiri Nazionala berritu zuten herritarrek Udaletxeko Idazkaritzan jaso dezakete goizeko 7.30etatik 13.30etara eta larunbatetan 9etatik ordubatera. Karnet berria jaso ahal izateko karnet zaharra eta resguardoa eraman behar da, baina ez da derrigorrezkoa karnetaren jabeak berak jasotzea.

◆ Jarduneko oharrak

Jardunek antolatutako txalaparta ikastarorako izena emateko epea martxoaren 18ra arte izango da zabalik. Txorimalo lehiaketarako izen ematea, berriz, martxoaren 27rako egin beharko da.

◆ Mendi irteerak

Pol-Polek gazteentzako mendi irteera antolatu du martxoaren 24rako. Izen-ematea, Pol-Poleko bulegoan astelehenetik ostegunera, 7etatik 8 t'erdietara. Bestalde, Pol-Polek eta Gorla Alpinok egun berean Kurtzeta-Orixol-Atxarte mendi irteera iragarri dute. Irteera goizeko 7.30etan Frontoitik egingo da. Txartelak Pol-Poleko tabernan.

◆ Proiektzioa Arans-Gin

Arans-Gi eskolak gorrei zuzendutako ekitaldien barne, asteazkenean 16.30etan "Australia eta bertako gor gizartea" hitzaldi proiektzioa izango da Arans-Gin Isabel Umerezen eskutik.



Torrekuako aparkaleku hauetan egingo da autobus geltoki berria.

Pesa autobus enpresak Arrasaten irekiko du Deba Garaiko zentrala

Bergarako geltoki berria Torrekuan egingo da

Pesa garraio enpresak Deba Garaiko zentrala Arrasaten irekiko du irail aldera. Haziendak lehiaketa publikora ateratako Muebles Peredako pabiloia erosi berri du Pesak 41 milioietan. Ramón Perurena Pesako zuzendariak Berrigarari azaldu dionez, "inguruko industrialde guztietan izan gara pabiloiak begiratzen, tartean Bergaran eta Antzuolan baina zorua ez da batere merkea... Azkenean Haziendaren lehiaketa horretara aurkezteko aukera izan da eta hori aprobetxatu dugu". Pabiloia berritzea 12 milioi inguru kostatuko zaio Pesari eta, horrez gain, Arrasateko Udalari beste 51 milioi ordaindu beharko dizkio.

Bergarako geltokiari dagokio-

nez, Ramón Perurenaren hitzetan, ez da aparteko nobedaderik izango. "Bergaran berdin jarraituko dugu lanean. Aldaketa bakarra zera izango da: gauez ez dela autobusik Bergaran geratuko. Autobus guztiak (20-25 bat) Arrasateko pabiloian gordeko dira. Baina Bergaran takilak funtzionatzen jarraituko du eta espero dugu Bergarako geltokiak etorkizunean mugimendu haundia izatea, bertan egongo baita Maltzaga-Urbinako irteeretako bat".

Autobus geltoki berria Torrekuan egingo da, orain aparkalekua dagoen lekuan. Aspiazu eta Berasategi bergarar arkitektoek egina dute aurreproiektua eta baliteke geltokia datorren urtean egitea.

ITXASMENDI

ERREKADISTA



Barrenkale, 36
BERGARA

☎ 76 50 64 / 76 13 61

EGUNERO DONOSTIA, BERGARA, ARRASATE,
ARETXABAETA, ESKORIATZA eta OÑATIRA.

SUBIJAI

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

IGARZA

MERZERIA
LENZERIA

Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

Musika Eskolako Orkestra Aste Santuan Valentziara joango da

Musika Eskolako Orkestak Valentziako Chulilla herrira irteera egingo du Aste Santuan. Musika Eskolakoak apirilaren 4an, gauez, aterako dira Chulillara eta apirilaren 8ra arte Valentzia aldean izango dira. Chulillan kontzertu bakarra eskeiniko dute, apirilaren 7an arratsaldeko 8etan bertako Parrokian.

Chulilla 4.000 biztanle inguruko herria dugu eta aurretik Bergarako musikariekin beste interkanbio bat egin zuen 1991ko martxoan. Orduan Udala Musika Banda izan zen han eta ondoren valentziarrak Bergarara etorri ziren. Oraingoan 70 bat lagun abiatuko dira Valentziara, tartean Udaleko eta Musika Eskolako ordezkari bana. Aste Santuan, besteak beste, Liriako kontserbatorioa bisitatzeko asmoa dute.

Musika Eskolako bidaia Bergarako Udalak ordainduko du eta estantziak Chulillako Udala arduratuko da.



70 lagun joango dira Chulillara Aste Santuan.

◆ Gestoren salaketa

Gestorek salatu dutenez, larunbatean Iñaki Arietaleaniz "Bizkai" bergarar presoaren trasladua egin zen eta asteazkenean bertan oraindik ez zekiten zein kartzelatara eraman duten. Badirudi "Bizkai" Alcalátik Orensera eraman dutela.

◆ Ikasleen protesta

Astehenean Ipintza eta Miguel Altuna institutuak eta Aranzadi Ikastolako batxilergoko ikasleek greba egin zuten Aritz Oianguren arrasatearraren atxiloketaren aurka protesta egiteko. Eguerdian, 200 bat ikasleek manifestazioa egin zuten. Aritz Miguel Altuna institutuko ikaslea da

◆ Termalismo programa

Diputazioak antolatutako termalismo programako eskaerak martxoaren 22a baino lehen Jubilatuetan egin beharko dira. Argibideak 76 21 40 telefonoan.

Jean Louis David
TRADITION
IILE-APAIN

Ibargarai, 43 BERGARA ☎ 76 22 48

**IREKIERA
PROMOZIOA
APIRILAREN 8ra ARTE**

Gure
ileapaindegiaren
berriztatzea
dela-eta, **%20ko
BEHERAPENA**
eskaintzen dizuegu
zerbitzu guztietan,
SOLARIUM BERRIA
ere barne.

Elikadura

Idiazabal gazta

- Ospe handia dauka Idiazabal gaztak...

- Euskal Herriko gaztarik onena da eta Estatu zein Europa mailan ere oso ezaguna da. Bere elaborazioa guztiz naturala da eta lortzeko ematen diren pausu guztiak kontrolpean egoten dira eta Idiazabal Gazta Jatorrizko Izendapenaren Dastamen Komiteak gazta egiteko esnearen jatorria eta baita gaztaren ezaugarriak kontrolatzen ditu.


- Non egiten da Idiazabal gazta?

- Euskal Herri osoan, Karrantzako edo latxa ardiaren esne gordinarekin, egosi edota pasteurizatu gabe, eta beste inolako esnerekin nahastu gabe, noski. Esneak gaztaren kalitatearen %80 emango digu, horregatik oso esne ona erabiliko da. Produktzio gehiena Nafarroan eta Araban ematen da, gero Gipuzkoan eta, azkenik, Bizkaian.

- Zein da gazta egiteko erabiltzen den prozesua?

-Esnea 30 bat gradurarte berotu ondoren gaztagia erabiliz (etxean ga-

tzatua egiteko erabiltzen denaren tankerakoa) esnea gogortu egiten da. Orduerdi batean esnea gogor egongo da eta txikitu egiten da. Esne gogortua gazuratik banatzen da esnean poliki eragiten zaio 37 gradurarte berotzen den bitartean, ondoren hoztu egiten da eta esne zatiak gazuratik ba-



BITTOR RODRIGUEZ
(Dietista)

natzen dira. Prensatu, eta masa gazta baten tamainuko zatietan banatzen da. Zati bakoitza molde batzuetan sartzen da, gaztura guztiz kentzeko. Ondoren ur gazitan sartzen da 24 orduz, eta gero ka-

mara batzutan gordetzen dira, 10 gradutako tenperaturan eta %90ko hezetasunaz. Horrela egongo da gutxienez hiru hilabetez zehar, orokorrean lautik zortzira hilabete egoten dira kamara hauean, egoten diren denboraren arabera, gaztak umotasun maila bat edo beste izango du.


- Idiazabal gazta bakarra al dago?

- Zenbait tokitan Idiazabal gazta ketu (keaz tratatu) egiten da eta horrela bi Idiazabal mota ditugu: ketua eta normala. Bestalde, Idiazabal gazta baten kalitatea neurtu egiten da eta horretarako itxura (zilindrikoa, erregularra), azala, orearen kolorea, begiak (zulotxoak, arroz ale bat baino txikiagoak), usaina (garrastan pixkatekoa, ke usaina gazta ketuetan), egitura, zaporea edota amaierako zaporea (hasierako zaporea berdina mantendu behar da pixkanaka moteltzen doalarik) kontutan hartuko dira.

- Zeintzuk dira ezaguri nutritiboak?

- Oso elikagai ona da, energia eta indar kontzentratua du, hezurren zatitza onena da. Gazta internazionala da eta horren lekuko 1992an Europako 15 produktu onenen artean aukeratu zuten Idiazabal gazta.

"Oso elikagai ona da, energia eta indar kontzentratua du eta hezurren zatitza onena da"



Idiazabal gazta Europako 15 produktu onenen artean aukeratu zuten.

LARRAÑAGA
eta ZUBIA
Banatzaileak

Errioxako ardoa, olioak, esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

AZPEITXI

Aranerreaka, 13 beheak ☎ 76 55 00

Jatetxea

VII. KAPITULUA

ANGIOZARKO ORGANOAK

Angiozar parrokiako organoa 1932. urtekoa da, Bilboko Juan Dourte etxeak egina.

Organoaren salneurria 23.000 pezetakoa zen, baina organo zaharra entregatu zioten Dourte-tarrei eta hauek 8.000 pezetan baloratu zuten instrumentu zaharra, konpentsatu egin zuten. Azkenik 15.000 ordaindu zuten.

Bi teklatu

Instrumentu honen bi teklatu eta pedaliarra dauka eta 17 errejistro edo joku (doinu). Gauza bitxi bezala, teklatuaren eskumaldean daukan "transpositorea" aipatu behar da.

Metalezko palanka handi bat da (autoen ganbio-palankaren antzekoa), eta berau mugituz, organoaren afinazioa aldatzen da; tonu erdi igo, tonu erdi bajatu...

Organo honean, beharbada, ederrena "tutti" akdira, hau da, organo guztia, bere indar guztiarekin jotzen denean, errejistro guztiak aterata.

Organo honen aurrekorik egon zela badakigu, bat behintzat (gaurkoa-

gatik trukatu zutena). Aurreko organo honen (edo hauek) "bila" ibili ondoren, ezin izan dut gauza handirik aurkitu:

1805. urtekoa?

Organoari alboko erreferentziak egiten zaizkio, baina ez da organoaren deskribapenik, edo erosketa kontraturik agertzen (ez ditut topatu behintzat).

Hona hemen alboko aipamen bat; 1805. urtean, "data" kontzeptu barruan (ordainketak): "... a José de Oyarzabal por componer la bóveda a la altura del órgano...". Beraz urte horretan jadanik bazen organorik Angiozarren.

550 erreal

1873. urtean zenbat irabaziko zuen organojoleak? 550 erreal. Askotan ere San Migel egunari erreferentzia egiten zaio, zaindariaren eguna,

BERGARAKO ORGANOAK

egun horretan bai organojoleak bai abeslariak eskupeko berezi bat jasotzen zuten eta.

Dourte etxea

Dourte etxeari buruz esan behar da, Euskal Herriko organogintzan leku garrantzitsua izan duela. 20-eta 30ko hamarkadetan batez ere etxe horretako instrumentu asko topa ditzakegu Euskal Herriko elizetan,


Angiozarko San Migel parrokiako organo honek daukan "butsunerik" handiena organojole faltarena dela esatea beharrezkoa da

Bizkaian batez ere.

Organojolerik ez

Artikulu hau amaitzeko, San Migel parrokiako organo honek daukan "hutsunerik" handiena organojole faltarena dela esatea beharrezkoa da.

Organoa ederra izanik, ondo kontserbatzeko, joko duen norbait behar du. Arrisku handiena, erabilera ezarena da.



15.000 PEZETA ORDAINDU ZEN ORGANOAGATIK.

Maria Josefa Ganuza

1.912ko irailaren 8an Donostian jaio eta bertatik aterako ez zela uste zuen arren, herri honen historiako garai garrantzitsu ugari bizi izan ditu 46 urtetan ondoan izan duen gizonarekin, Telesforo Monzonekin. Martxoaren 9an bete ziren Telesforo hil zenetik 15 urte eta Maria Josefak une bat ere ez du bere Telesforo barik pasa. Bien bizitza lerro batzuetan konta ezina bada ere, euren historia eta zenbait pasadizo jaso ditugu.

Monzoneen jarraitzailerik sutsuena

Nolakoak izan ziren Donostiako zure lehen urteak?

- Donostia orduan oso atsegina zen; oso urte onak eta alaiak izan ziren.

- Sacre Coeur eskolatik Ingalaterrara joan zinen ikastera.

- 18 urte bete nituen egunean, Olaso Dorrrera etorri nintzen "Andra euskara" antzezlanaren aurkeztu behar zelako. Ingalaterrara joan behar nuela esan zuenean Telesforok ez nintzela joango esan zidan. Halere, joan nintzen, bion gurasoak lehengusuak izan arren, bera ez baitzen inor hori esateko.

- Noiz hasi zineten elkarrekin ibiltzen?

- Antzerkiaren egun horretan. Lau urtez ibili ginen. Oso garai alaiak izan zen. Telesforo herriz herri ibiltzen zen hitzaldiak ematen, gu amarekin entzutera joaten ginen; 33an Gipuzku Buru Ba-

tzarreko lehendakari zen, Euskadi-Europa aberri eguna antolatu zuen... Nire bizitzako urterik onenak izan ziren, abertzale-tasuna garai hartan oso alaiak zelako, Euskadi askatuko zela uste genuelako, eta beharbada, nire egoeragatik, andregai nintzelako. 1.935ean ezkondu ginen Eskoriatzara. Gero Madrilen hilabete batzuk egin genituen diputatu zegoelako.

- Eta gerra iritsi zen.

- Telesforok alde egin zuen, Donostian zegoen, baina nik garai horretaz ez dakit asko. Esan zidan 'magnolioak tailatu behar dira' esandakoan guk Bergaratik alde egin beharko genuela, baina sekula ez nuen entzun; mi-

litarrak zetoze eta alde egin genuen. Bera Donostiatik Loiolara joan zen, Lizardi eta zeuden han; euskal gudariak sortu zen.

- Loiolatik Txekoslovakia joan zen armak eroatera.

- Armeekin Bilbora etorri behar zuen. Zerkatuta egon arren, armak Lezo de Urrestietaren ontzian sartu, zerkoa apurtu eta sartu zituen. Jose Antonio Agirrek eskerrak eman zizkion, Telesforori esker izan zelako posible Euzko Jaurlaritza. Orduan egin zuen gobernazio kontseilari.

- Bilbotik Belgikara.

- Ni ez, baina Telesforo Bilbo erori arte, azken-azkenera arte geratu zen;

gerra galdutzat jo zenean Belgikara joan ginen; ne- gu bat pasa genuen. Handik Donibaneko Olaso bordara joan ginen. Hor ginelarik munduko gerra sortu eta Ameriketarantz abiatu ginen. Ia urtebete pasa genuen ontzi batean, Dakar, Casablanca... gora eta behera. Azkenean Mexikora iritsi ginen. Han argitaratu zuen *Urrundik, bake oroi* (45) poema bilduma, gerra osteko lehen euskal liburua. Zioen ni nintzela bere kritikorik onena, lan bat niri gustatuz gero ona zela.

- Mexikon nolako bizitza egiten zenuten?

- Normala, atsegina, baina beti Euskalerra, Bergara gogoan genuela.

"Nire bizitza oso ederra izan da, ez nuke ezer aldatuko"

"Olaso Dorrea fundazioaren helburua da etxea museo egitea eta, artxiboak jendeari erabiltzeko aukera ematea"

Etxe hutsak alokatu, jantzi eta ateratako aldearekin aberasten ari ginen. Gerra bukatu zela jakin bezain laister itzuli egin ginen, Telesforok herri-min izugarria zuen.

- Zergatik etorri zineten Donibane Lohitzunera?

- Nire ama eta aitona Lapurdin bizi izanak ziren, anaia zaharrena han sortu zen, Telesfororen aitona Santa Kruz apaiza etxean eduki zuen izkutatuta... guretzat oso toki goxoa zen.

Baserritik bizi ginen. Telesforo esnedun ibili zen, marrubiak saltzen genituen, franbuesak... 45etik 77ra arte bizi izan ginen eta beti Bergaraz hitzegiten. Idatzi egiten zuen, Alderdi aldizkariko artikuluak, *Gudarien eginak* (47), poesia liburua; *Menditarrak*, *Hazparneko anderea* eta beste antzerki batzuk... Urte lasaiak pasa genituen, 60.ean, ordea, gauzak aldatu egin ziren, beste borroka sortu zen eta ez da gelditu.

- EAJn ibili eta gero HBren sortzaileetako bat izan zen.

- Mexikon geundela Euzko Jaurlaritza euskal sozialismoa sortzen saiatu zen, baina ez zen hala gertatu; Telesforok euskal sozialismoa lortu nahi zuen eta hori ezinik 52an Jaurlaritza laga zuen. 60a baino lehen ETAren sortzaileak azaldu zi-

ren Donibanen; etxera gonbidatu genituen afaltzera. Euskaraz hitzegiten sartu, eta espainolez hitz bat ere esan gabe aldegin zuten -garai hartan euskaraz ez zen orain bezala entzuten-. 'Ze euskaltzaleak!' esan genuen. Eta horrela hasi zen, lehenengo bat ezagutu, gero beste bat... Etxera hainbeste jende etortzen zen, azkenean Aita Lartzabalekin errefuxiatuen babe-

serako *Anai Artearen* sortzaile izan zen.

- Politikoki aldaketa handia izan zen?

- Gure bizitza bi aldiz puskatu dugu: lehenbizi gure familiaren ingurukoekin eta gero, PNVrekin, PNV Telesfororen kontra jarri zenean.

- 1977an Amnistia.

- Bera mendiz 20 egunen buruan Bergarara etorriko zela esan zidan. Handik egun batzuetara


herbesteratuekin mendiz pasa eta Durangon azaldu ziren. Gero Askatasunaren aldeko martxan agerraldiak egiten zituzten. Arazurin atxilotu eta legalizatzeko paperak hartzeko esan zioten; herbesteratuei, ordea, ez zizkieten paperak eman nahi; berak inondik ere ez zuen onartu. Ni, bitartean, Donibanetik ia arratsaldero etortzen nintzen Olaso txukuntzera.

- Olaso dorrea kendu egin zioten.

- Etxea Estatu espainolak konfiskatuta bereganatu zuen; 77ko abuztuaren 6an Telesforo sartu eta, hala, etxea konkistatu zuen. Telesforo bizi zelarik etxeko muebleak Donostiako Francoren jauregian zeuden, berreskuratu zituen, baina etxearen jabetzaren paperik ez. Telesforo oso erromantikoa zen, paperik izan ez arren ez zen larritzen.

- Kartzelan ere egon zen.

- Bai, eta gaisorik zegoenez ospitalera eramane zuten; fusilez inguratuta zegoen eta HBko diputatu egin zutenean jaitsi zizkieten armak. Handik gutxira parla-



"Telesforoz gehien gogoratzen dudana eman didan zorientasun handia da".

URKIOLA

BURDINAKI DENDA

Denda itxi behar dugula eta, %50eko deskontuak

%50

• MUGERTZA GAINA • BERGARA •

Gallastegi

Jostundegia

Mahozko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 76 10 85

mentari izan zen.

- Baionako katedralean gose greba egin zuen.

- Behil kontsularen bahiketan bitartekari izan zelako Euskalerritik bidaltzeko aitzakia bila zebiltzan. Donibanen egin zen Aberri egunean probokazio bat egon zen eta nahasmena sortu zen. Telesforok zerikusirik izan ez arren, aukera hori aprobetxatuz Euskalerritik bidali nahi izan zuten. Gose greba egin eta ez bidaltzea lortu zen.

- Martxoaren 9an 15 urte hil zela.

- Bai, eta Telesfororen gogoia betetzea eta nik ezagutzen dudan Telesforo ezagutaraztea da nire helburu bakarra.

- Zer da Telesforoz gehien gogoratzen duzuna?

- Zoriontasun handia eman dit. Zer esango dut, ez dakit, bere eskuak, edukazio izpirituala -oso kristaua zen-... Bere kualitate handi bat zen inor ez kritikatzeko, sekula ez zuen inortaz gaizki hitzegtzen.

- Bera hil eta gero Olosa Dorrea fundazioa sortu zen.

- Hil aurretik esaten zuen Olosa Dorrea herri-



Telesforo 1979an gartzelatik ospitaleratu eta handik irten zenean Maria Josefarekin Zumelaganean.

arentzat nahi zuela eta fundazioa sortu behar zela, baina ezer ez zen egin. Fundatzaileak Isidro eta Dolores, bere anai-arrebak, eta ni izan ginen. Bakoitzak fundazioari genuena eman genion. Nik usufruktua nuen; Isidro eta Doloresek ni hil eta gero izango zuten eskubidea. Orain etxea Fundazioaren ize-nean dago; Gure helburua da etxe hau museo egin, eta artxiiboak, dokumentuak, liburuak eta inon ez dauden liburuak

jendeari erabiltzeko aukera eskaintzea.

- Liburu garrantzitsuak dituzue.

- Bi liburutegi ditugu: batetik, Olosa etxekoa, oso ederra; eta, bestetik, Lacombe liburutegia. Olosakoan liburu asko Francok sakabanatu eta erre egin zituen, baina badaude garrantzitsuak. Horien artean inkunablenak, 1.500. urtea baino lehenagokoak. Telesforok Parisen Lacombe-i erositako liburutegian, berriz, Lucien Bonaparteren eus-

kalkien mapak, Axularren Geroren bi ale, beste erdi bat, Leizarragaren Testamentu zaharra... liburu asko bakarrak dira.

- Orain zertan ari zara?

- Lacombe liburutegia sailkatu eta Olosara ekarri nahi dut, Euskaltzaindiaren laguntzaz, katalogoarekin ari gara. Gero Olosa Liburutegiarekin gauza bera egingo dugu. Telesfororen asmoa horixe zen.

- Beste zer egitea gustatuko litzaizuke?

-Antezelanak montatzea maiteko nuke, baina oso zaila da; iparraldean Telesfororen poesia eta antzerkirako gusto handia dute. Heletan bere antezelan txiro bat eman

"Telesfororen gogoia betetzea eta nik ezagututako Telesforo ezagutaraztea da nire nahia"

ileapaindegia

eder gela

disdira

Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55

GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02

EGUREN

GESTORIA

Maria Pilar Eguren Díez

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta Plaza, 3 behea

☎ 76 21 65 / 76 24 45

zuten, gauza txiki, txiro-txiroa. Nik txirotasuna biziki maite dut. Bestetik, Madrilgo Club siglo XXIn, Parisen, Donibanen, eta beste leku batzuetan emandako hitzaldiak konpaktoetara pasatzea ere gustatuko litzaidake.

- Txirotasuna diozu, baina zuek sortzez familia handikoak zintzen.

- Ez, Euskalerriko familia bat, oso abertzalea; niretzat Euskalerriko familia guztiak dira handiak.

- Telesforo politikoa, Telesforo kantugilea, Telesforo Euskaltzaindiako urgazlea... norekin geratzen zara?

- Berarekin. Berak jartzen zuena politikan, berak jartzen zuena kante-tan, idatzietan...

- Iparraldea eta Hegoaldea oso ondo eza-gutzen dituzu. Alde handia dago?

- Abertzaletasunean haiek gaztetxoak dira, hemengoen atzetik doaz, baina oso poetikoak dira... dena da ederra, dena da Euskalerria. Nik denbora gehiago iparraldean pasatzen dut, baina bietan egoten naiz fundazioko lanak egiteko.

- Klandestinitatea, herbestea... nola gogoratzen dituzu urte horiek?

- Telesfororen atzetik Euskadiren jabetasunaren bidetik. Nire bizitza oso ederra izan da. Berriz jaioko banintz ezer ez nuke aldatuko.

- Momentu batzuetan beldurra pasako zenuen.

- Bilbon bonbardaketak zirenean, jendea kalean, presoak, Telesforo balkoian eskuak zaba-

lik... eta ni bere ondoan. Banekien Telesfororen besoek, apuntatzen zizkiguten fusilek baino indar handiagoa izango zutela. Egoera gehiago ere izan dira, baina orduan ez nintzen beldur, ez nintzen konturatzen.

- Zuen bizitza politikak erabaki du.

- Denean ados egon gara. Politikak baditu gauza onak eta txarrak, baina gauza zikina da; halere, Euskalerraren jabetasuna lortuko badugu politikara jaitsi behar da.

- Gaur egun politika, kultura... jarraitzen dituzu?

- Lehen nire egunkaria Telesforo zen, berak irakurtzen zidan. Orain ez dut hainbeste irakurtzen, baina jarraitzen ditut albisteak. Politikan egokiak diren ekitaldietara joaten naiz. Martxoaren 24an Anoetara ezin izan nintzen joan sukar-ragatik eta penaz geratu nintzen.

- Egoera nahasian bizi gara.

- Nik gorroto gutxiago eta maitasun gehiago nahi dut. Horrelako galdereri Telesforok oso ondo erantzungo lieke.

- Konponbiderik badeu Euskalerriko ego-

erak?

- Bai, bai, noski, itxaropen handia dut. Telesfororen asmoa betez, euskaldun guztiok bat egiten dugunean lortuko dugu gure jabetasuna.

Galde-galdeka

■ **Telesfororen kantu bat.**

■ **Hostoak.**

■ **Telesfororen antzezlan bat.**

■ **Zurgin zaharra.**

■ **Bere liburu bat.**

■ **Bake oroi eta Gudarien eginak.**

■ **Artikulu edo idatzi bat.**

■ **Baratzeaz hitzegiten duena.**

■ **Italia, Ingalterra, Belgika, Mexiko, Venezuela... Herri bat?**

■ **Euskalerria! Galdetzea lotsagabekeria da.**

■ **Gehien erabili duzun hizkuntza.**

■ **Frantsesa edo espainola; gehien maite dudana euskara.**

■ **Donibane Lohitzune ala Bergara?**

■ **Bergaran nagoenean hemendik joateko penaz egoten naiz, eta Donibanen gauza bera gertatzen zait.**



"Gure bizitzan bi eten daude: lehenengo familiaren ingurukoekin, gero PNVrekin".

Zure ustez tabernek ixteko ordu jakin bat eduki beharko lukete?



Antonio Rodríguez

54 urte, langilea

Nire ustez bai. Gazteen tabernak goizeko ordubiak arte eta gainontzekoak 11k arte zabalik egotea nahikoa dela uste dut.



Inma Herмосilla

30 urte, langilea

Ordutegi fijoak ez dut uste, orden publikoa errespetatzen bada behintzat.



José De Miguel

57 urte, langilea

Niri berdina zait, tabernetan ez naiz ibiltzen eta. Baina tabernak goizeko hirurak arte zabaldua badaude, nahikoa iruditzen zait.



Iñaki Larrañaga

18 urte, ikaslea

Ez dakit, ez dut horretan pentsatu. Niri behintzat tabernek nahi dutenean ixtea komeni zait. Zenbat eta beranduago, hobe.



Ana Iraeta

37 urte, etxekoandrea

Nire ustez bai. Ordurik egokiena zein den? Agian goizeko hirurak nahikoa da.



Marije Gurrutxaga

40 urte, langilea

Ez dut oso garbi ikusten baina nik uste dut ordutegi bat eduki behar dutela. Ez dakit, goizeko laurak arte adibidez zabaldua egotea nahikoa izan daiteke.

Biltoki.



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

PHILIPS



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK.
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK.
100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK.
ALFONBRAK, LARRUZKO SOFAK.
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK.

SAN MARTIN PLAZA ☎ 76 43 51

SONY

TB, BIDEOAK, KAMARAK.
HI-FI EKIPOAK.
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96



Daewoori 2.500 milioi

Autoak, besteak beste, egiten dituen Koreako multinazionala Euskal Herrira etortzekoa da hozkailuak egitera. Ona dirudi horrela gertatzea baina Jaurlaritzak gu guztion dirutik 2.500 milioi pezeta emango die. Horren trukean 400 lanpostu berri sortuko lirakeke.

Baina emaitza hobeak eta iraunkorrakoak lor daitezke-lakoan nago. Iraunkorrak diot ez delako ahaztu behar multinazionalen inbertsioak ez direla betirako izaten, nahi dutenean berehala joaten direlako etorri diren bidetik eta inori begiratu gabe. Lehenik eta behin, Euskal Herrian badago hainbat enpresa hozkailurik egiten duena, MCC taldekoak esate baterako eta horiei Koreakoari emandakoa emango baliete ziur naiz ez baztertzeko moduko etekin soziala aterako luketela.

Urruti joan gabe, ezagutzen dut enpresa euskaldunik ehundaka lanpostu sortu eta 300 milioiko inbertsioa egin eta gero, industria sailetik pezeta bat bera ere jaso ez duena bost urtetan. Hau da, nire ustez hobe da milioikada hori hemengo enpresentzat dauden laguntzei gehitzea kanpokoei ematea baino, nahiz eta horrek kanpotik 7.500 milioi ekartzea errazten duen, gaurko ogia biharko goseaz izan daiteke eta. Epe luzera inbertsio hobeaz izango litzateke eta etekin guztiak bertan geratu-ko lirakeke hein handi batean, Korea urrunak irabazi barik.

Baina sakonago begiratuz, enpresa pribatuei laguntza ematea ona izanik eta kooperatibei ematea oraindik ere hobe bada ere, zergatik ez du Jaurlaritzak multinazionaleri emandako hamarnaka mila milioiekin -Moulinex eta abar- talde enpresarial publiko bat sortu? Euskal Herriak etorkizunik edukiko badu ez da bakarrik bertan inbertitzen delako, inbertsio horien etekina ere bertan geratu eta berrinbertitzen delako baizik.

Fermin LAZKANO



Grazia gabekoa

Beti pentsatu izan dut barre algara orokorretik faxismoa pauso txiki bat baino ez dagoela, eta horren adibide bat baino gehiago topatu izan dut.

Diktadore gehienek ezaugarri nagusia izan da erabili duten populismoa; batzuek hauen "graziei" barre egin dieten bitartean, besteek jaso behar izan dute egurra. Faxisten ezaugarria da, eta ez dago aldatzerik.

Larriagoa da nire ustetan, pertsona bat "fatxa bat" dela onartzea, eta hala ere, berarekin (eta ez berataz) barre egitea. Jesus Gil higuigarriak (beste hitzik ez du merezi) bete du azken urteotan paper hori; erreinuko "grazioso" eta "bufonia" izan da, eta bitartean, batek baino gehiagok jasan behar izan ditu bere irainak eta "graziak".

Handia eta harroa da Gil, eta "beltzari lepoa moztu behar diola" esaten duenean, boteretik ez dutenak gutxiesten ditu. Handia, harroa eta faxista da Gil, eta bere kontra daudenak "drogazaletzat" jotzen ditu eta lasai-lasai geratzen da.

Aurreko asteartean Francoren aldeko oihuak bota, pertsona bat jo eta beste asko lurraren pare jarri zituen, eta artean ere, jende askok egin zuen barre.

Orain arte futbol agintariak izan duten jarrera kontuan izaten badugu, zigor txiki bat jarriko diote, eta hurrengo egunean prest egongo da beste astakeria bat esateko.

Bere taldeari hamar edo hamabost puntu kenduko balizkiote, hurrengo egunean astakeria bat esango luke, baina behintzat beste guztiak pozik egongo ginateteke. "Berataz" barre egin ahal izango genuke. Eskerrak igandean Valladolidek irabazi zuen.

Mikel LIZARRALDE

BERGARA Karrozeriak

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31



ETXE BERRIA


ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Amillaga (Gasolindegia ondoan). Tfnoa: 76 57 34

ZABALETA ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...



Irizar, 2

☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK



■ **Zikloturistak martxan**

Ohizkoa den bezala, Bergarako zikloturistek denboraldi hasierako irteera egin zuten **Dorletara** pasa den martxoaren 3an. Guztira, 25 lagun inguruk

hartu zuten parte lehendabiziko irteera honetan eta guztiek forma onean daudela erakutsi zuten Arlabango aldapetan. Dorletako Amabirjinari lorak laga ondoren, hamaiketako egin eta Bergarara itzuli ziren. **Txiki Menorren** argazkian zikloturistak Plazako irteeran.



■ **Argazkilariak Errioxan**

Arrasate, Soraleuze, Eibar, Ermua, Zaldibar eta Bergarako argazki rallyak biltzen dituen **Argazki-Bidezeko** argazkilariek Errioxara irteera egin zuten. 20 bat lagunek Biasteriko Araco bodegetan bazkaldu zuten. Bazkalosteko argazkilaritza tertuliaren ondoren aurtengo sariak banatu ziren. Zaldibarko Roberto Madariagak eskuratu zuen lehen saria, **José Luis Feo** eta **Hilario Azkargorta** bergararrak bigarren eta hirugarren izan ziren eta ondoren Juan Mejias eta Alfonso Cruz sailkatu ziren. **Aguayoren** argazkian, saritutako, bostak.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

ZUBIAURRE
aroztegia

Sarrerako eta barrurako atek, horma armairuak, tarimak, egurrezko eta PVCzko leihoak, era guztietako arotz lanak...

Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarroia 1, 8. pabiloia ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30


■ **Emakumearen eguna**

Ostiralean, **martxoaren 8an**, Emakumearen eguna ospatzeko, Udaleko Ongizate Zerbitzuak antolatutako txokolotada izan zen Pertxa elkartearen. 60 bat emakume hurbildu ziren bertara eta, meriendatxoak egiteaz gain, beraien



kontuen gainean berba egiteko aukera izan zuten. Era berean, argazki lehiaketako sariak banatu zitzaizkien **Gloria Sánchez** eta **Julia Flores**i. Bildutako artean beste sari bat zozketatu zen eta **Sagrario Osinalde** izan zen irabazlea. Hirurek Jarduneko Emakume Taldekoek egindako koadro bana eskuratu zuten. Argazkian, ezkerretik eskumara, Sagrario Osinalde, Julia Flores eta Gloria Sánchez.

Zertan dihardute ba?



Luis Elorza 54 urteko bergararra izango da Pertxa elkarteko presidentea berria. Luis Elorzak azken 20 urtetan Pertxako presidentea izan den Jesus Mari Egurenen testigua hartuko du. Elorzarekin batera Luis Mari Belastegi presidente ordea, Javier Lizarralde (idazkaria), Jose Luis Mendizabal (diruzaina) eta Juan Mari Ruiz, Pedro Larrañaga, Iñaki Arrieta eta Jose Mari Elorza bokalak izango dira Pertxa elkarteko zuzendaritzan datozen bi urteetan. Pertxa elkartearen 1976. urtean sortu zen eta ordutik Jesus Mari Eguren izan da presidentea bakarra. Gaur egun 120 bazkide ditu Pertxak.

■ **Gregoria Aranburuk 101 urte**

Gregoria Aranburu Elgetak 101 urte bete zituen asteartean, martxoaren 12an. Eibartarra jaiotzez, Gregoriak (Sebastian Azpeitiaren alarguna) urte asko daramatza gure

artean eta asteartean Erresidentziako lagunekin ospatu zuen urtebetetze eguna. Umoretsu harrapatu genuen Gregoria asteartean eta kantu bat baino gehiago ere eskeini zigun. Osasun ona duen seinale argiena... Zorionak eta eutsi umoreari!!



ETXAGI
JATETXEA
 AFARIAK, BATAIOAK,
 JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
 MENUA, GOSARIAK,
 BAZKARIAK...
 Masterreka, 8 ☎ 76 53 12


Kizkur
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
 Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

LARREA
TABERNA
 Kale Barren, 17
 ANTZUOLA

Iñigo Almorza

Nissaneko mekanikoa eta automozioko ikaslea, Iñigo Almorza (19 urte) aurpegi ezaguna bihurtu zaigu ETBko "Txiskola" programari esker. Martxoaren 25ean Igor Oruesagasti eta Aitor Muruamendiarazekin batera berriz telebistan izango dugu.

- Ikasketak ala lana nahiago?
- Lana, batez ere soldatagatik. Baina ikastea ere gustatzen zait.
- Zelan definituko zenuke zeure burua?
- Lotsa gutxikoa eta berritsua naizela esaten dute...
- Zein da txistek kontatzeko momenturik egokiena?
- Afaldu eta gero. Behin pizpautakoan....
- Eta zeintzuk dira txisterik arrakastatsuenak?
- Andrendako berdeak, eta mutilendako denetik.
- Mr. Bean ala Martes y Trece?
- Mr. Bean, fenomeno da.
- Umore beltza ala zuria?
- Gauzak ironia pixka batekin kontatzeak badu bere grazia.
- Telebista programa bat?
- Rifi-Rafe.
- Zein programatarara ez zinateke sekula joango?



“Lotsa gutxikoa eta berritsua naizela esaten dute. Txistek kontatzeko momenturik onena afalostea da eta andreei txiste berdeak gustatzen zaizkie batez ere. Kiniela irabaziz gero, etxe dotore bat erosiko nuke”

- "Lo que necesitas es amor"era.
- **Hobby bat?**
- Asko dauzkat, kotxeak adibidez.
- **Kotxerik gustokoena?**
- BMW M3a.
- **Kirol bat?**
- Harrijasotzea.
- **Perurena ala Saralegi?**
- Saralegi.
- **Bertsolari bat?**
- Peñagarikano.
- **Erretzailera zara?**
- Ez, eta albokoak erretzeak amorruta ematen dit, kotxean batez ere.
- **Ile motza ala luzea?**
- Motza.
- **Janari eta edari bat?**
- Lentejak eta sagardoa.
- **Sagardotegietan izan zara aurtan?**
- Bai, pare bat aldiz.
- **Kafe hutsa ala ebakia?**
- Kafesnea.
- **Zerbait kolekzionatzen duzu?**
- Bai, txanponak.
- **Kiniela irabaziz gero, egingo zenukeen lehen gauza?**
- Etxe dotore bat erosi.
- **Nora egingo zenuke bidaia?**
- Betidanik Kanadara joateko gogoia izan dut.
- **Emakume batengan zer apreziatzen duzu gehien?**
- Bapatean bistan dagoena eta ondoren buruarina ez izatea.
- **Zer egingo duzu Aste Santuan?**
- Iguar Saloura joango naiz.

Aranzabal

OIHALAK

Zubieta, 32 ☎ 76 11 50

ARREGUI, E.M.

ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78

ETXEBIZITZA

Pisu eguzkitsua Maduran salgai. ☎ 76 45 03.

Etxea salgai Koldo Eleizalden. Prezio interesgarria. ☎ 76 35 20.

Pisua salgai herri erdian. ☎ 76 39 64.

Pisua salgai Barrenkalen. Berriztuta. ☎ 78 70 30.

Pisua salgai San Antonion. Amueblatuta. ☎ 76 05 99.

Pisua salgai Burdiñaten. 70 m². ☎ 76 38 06.

Pelukeria traspasatzen da herri erdian. ☎ 76 14 60.

Garajea salgai lbargarain. 22 m². ☎ 76 44 25.

Lokala alokairuan Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 69.

Garajea (2 plaza) salgai Aranerrekan. ☎ 76 06 96.

Pisua salgai K.Eleizalden 25ean. ☎ 76 09 37/53 55.

Pisua alokatzen da Antzuolan. ☎ 76 64 65.

Taberna alokatzen da. ☎ 76 46 90.

Garajea salgai Bolun (2 plaza). ☎ 76 54 11.

Garajea alokatzen da San Lorentzon. ☎ 76 29 33.

DENETARIK

Txakurrendako kasetaxikia salgai. ☎ 76 09 12.

R-14 kotxea (SS-N) kotxea salgai. ☎ 76 03 93.

Lau tapakubos aurkitu nituen aurreko astean Santa Marina eliza ostean. ☎ 76 15 36.

Hi-Fi kate txiki bateko bi bafle salgai. ☎ 76 52 31.

Suzuki GSx 600F motorra salgai. ☎ 76 20 26 (gauzez).

Urrezko pultsera galdu nuen otsailaren 25ean. Sarrituko da. ☎ 76 24 33.

Eraztun bat galdu nuen Karnabal domekan taberna bateko komunetan. ☎ 76 23 82.

Renault 4 F6 kotxea salgai. ☎ 76 22 11.

Ford Sierra kotxea (SS-AD) salgai. ☎ 76 33 10.

Bigarren eskuko **karabina** erosiko nuke. ☎ 76 24 31.

Musika bateria salgai. Ia berria. 55.000. ☎ 76 08 58.

Bizikletan aritzeko rodilloa erosiko nuke. ☎ 76 18 78.

Montesa H7 Enduro motorra (250 cm³) salgai. 100.000 pta. ☎ 76 31 40.

Pekines txakurkumak salgai. ☎ 76 26 92.

Fiat Uno 45 kotxea (SS-AC) salgai. ☎ 73 35 35.

Opel Corsa (SS-U) kotxea salgai. ☎ 76 46 54.

Zorro bat (walkmanarekin) galdu dut Usoako plazan. ☎ 76 31 05 (losune).

LANA

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Matematika eta zientziatako klaseak. ☎ 76 03 72.

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 06 56 (Irene).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Klase partikularrak ematen dira. ☎ 76 33 26.

Matematika klaseak. ☎ 76 06 50.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89

Gutxiuak, zaharrak edo haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 48 65 (Paki).

Aleman diplomatuak klaseak emango lituzke. ☎ 76 12 77 (Maite).

Neska batek haurrak edo zaharrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 46 14 (Pili).

Aleman diplomatuak arratsaldez klase partikularrak emango lituzke. ☎ 76 04 93 (Idoia).

Matematika (Enpresari-tza maila) klaseak hartuko genituzke. ☎ 76 26 82.

Zaharrak zainduko nituzke, egunez zein gauzez. ☎ 76 11 11.

**EDEL
TAPIZDENDA**

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta, 14 BERGARA

**TABERNA
ZAHARRA**

Jatetxea


bazkari eta afariak

Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR

**MARGO ERAKUSKETA
Victor Jesús González**

NAIKARI

Taberna
Masterreka, 20 ☎ 76 57 71



"Dantza Askatuko Euskadiko Txapelketara berriz ez aurkezteko erabakia hartu nuen iaz"

"Oso gustora nago Jardunek antolatu duen dantza ikastaroan, jendeak interes handia erakutsi du"

EDUARDO MURUAMENDIARAZ, DANTZARIA

"Harrera ofizialak aurrekuarekin apaintzera ezin gaitezke mugatu"

Eduardo Muruamendiaraz (31 urte) dantzari bergararak euskal dantzen munduan lor daitekeen guztia lortu du, Euskadiko auresku eta Dantza Askatuko txapeliduna baita. Beste bide batzuk urratu nahian, Gozategi anaiekin batera prestatutako ikuskizunean buru-belarri dihardu.

- Dantza sueltoko Euskadiko txapelketara aurkezteko asmorik ez zeneukala adierazi zenuen iaz.

- Bai horrela da. Iaz hirugarren aldiz jarraian irabazi genuen Amaiak eta biok, eta nik bertan behera laga eta aurrerantzean txapelketetara ez aurkezteko erabakia hartu nuen. Lan handia eskatzen du eta, bestalde, lor nezakeen guztia lortu dut, txapelketa hiru bider jarraian irabaztearren Nestor Barrenetxearen eskultura Bergarako Udaleria ekarri genuelako.

- Eta aureskuan beste horrenbeste?

- Beno, Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketak bi aldiz irabazi ditut eta aurren hirugarrena lortzea da nire asmoa; ho-



Amaia Agirre eta bera Euskadiko dantza askatu txapelidunak dira.

rretarako prestatzen nabil. Maiatzaren 26an Pasai Antxon jokatu da eta aurretik Gipuzkoakoa izango da. Nire helburua biak irabazi eta txapelketetara berriz ez aurkeztea da.

- Txapelketak laga arren, dantzaren munduan jarraitzeko asmorik baduzu?

- Bai, Donostiako Eskola dantza taldean dihardut eta Gozategi anaiekin batera dantza ikuskizun batekin buru-belarri nabil.

"Gozategi anaiekin batera ikuskizun bat prestatu dugu. Soinua, panderoa, kitarra eta bajua oinarri moduan hartu eta 14 dantzari izaten gara taula gainean"

- Egiguzu berba Gozategi anaiekin duzun proiektu horri buruz.

- Oinarri moduan Gozategi anaiekin musika hartu eta koreografia bat lantzen dugu. Musikari dagokionez, soinua, panderoa, kitarra eta bajua erabiltzen ditugu eta gero, beste 14 dantzari izaten gara taula gainean, 8 neska eta 6 mutil. Koreografiari eta erabiltzen ditugun jantzi-ei dagokienez, ohiko euskal dantzetatik urrundu gara, bide berriak jorratu nahian. Ordu t'erdiko ikuskizuna da eta dagoeneko bizpahiru emanaldi eskaini ditugu. Ikuslegoaren aldetik oso harrera ona izan dugu. Zapatu honetan Oartzunen izango gara.

- Euskal dantza berri nahi duzue?

- Argi laga nahi duguna da euskal dantzekin gauza berriak egin daitezkeela. Harrera ofizialak aurrekuarekin apaintzera ezin gaitezke mugatu.

- Bukatzeko, zer moduz Jardunen dantza ikastaroan?

- Oso gustora. 40 lagun inguruk dihardute eta asko aurreratu dute. Jendeak interes handia erakutsi du.



1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. BAR CANALEJAS	31	13	47	14
2. ERROTAGAIN	31	13	50	21
3. OGIZUN	26	13	45	38
4. MONGATXURRA	25	13	53	27
5. MADURA INDUSTRIAS GOL	23	13	42	32
6. KABIA	19	13	30	32
7. ARLOTEAK	15	13	24	28
8. BILDURBAREK OPEL/LAM	15	13	32	37
9. ORTZI	13	13	22	41
10. OZAETA	4	13	29	63
11. UFALA	3	13	30	69
12. BERGATRANS	0	0	0	0

2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. JALLA OH ZEREZOS	39	15	105	48
2. A ZE FLAXA	35	15	54	36
3. PAGOMENDI	29	15	68	47
4. ARTUSAMAK	29	15	54	38
5. UVE BIKOITZA	19	15	42	59
6. NAIKARI HOOLIGANS	19	15	55	57
7. ETXAGI	16	15	62	74
8. KAYAK OS JARDINEIROS	16	15	64	63
9. AUTOBEREZI	15	15	45	56
10. HALTZARI	15	15	35	62
11. INDARGORRI	12	15	18	38
12. ERI	11	15	38	55

3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. SOROPOTROAK	39	16	88	45
2. KIROLZALEAK	37	16	82	44
3. LA JUVE	28	16	50	49
4. NEKROFILIKOS	27	16	66	66
5. EZINLEIKE	27	16	73	45
6. AMOZKIBAR	26	15	39	27
7. MOSKIS	23	16	41	61
8. CONSTRUCCIONES BERGARA	22	16	53	57
9. EH BITERRAK	14	15	29	62
10. SHAKTALE	11	16	32	59
11. IGANDEKOAK	10	16	38	67
12. ARI ARI	9	16	59	75

4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	34	14	73	29
2. GUADALEST	32	15	63	28
3. TXIPIRON	31	15	58	36
4. PJS	28	14	62	37
5. OSINTXU	23	14	58	47
6. MATXAKATEGI	23	15	62	64
7. PATXARAN TEAM	19	15	50	81
8. LABEGARAIETA	18	14	47	63
9. PATA NEGRA	17	15	47	52
10. ALDOKA MALDOKA	10	14	41	38
11. XURRUPAK	0	15	25	96

TALDEAK



Construcciones Bergara taldea Oscar Velarde, Serafín Tena, Luis Herzog, Miguel Rot, Brígido González, Juan Carlos Murillo, José Sánchez, Francisco Tena, Pedro Murillo, Fernando Rodríguez, Alex Bernal eta José Antonio Rejanok osatzen dute. Lau urte daramatzate txapelketan eta beti 3. mailan izan dira. Halere, aurten mailaz igotzeko helburua dute. Txapelketari dagokionez, orokorrean ondo dagoela esan digute, baina arbitraiekin "desmadre" handia dagoela adierazi digute: "arbitroen maila eskaxa da eta arazoak izaten dira".

PARTIDUAK

LARUNBATEAN BARRUAN

09:00: Labegaraieta-Patxaran T. • Shaktale

LARUNBATEAN KANPOAN

10:00: La Juve-Shaktale • Patxaran Team

11:00: Ezinleike-Ari Ari • La Juve

12:00: Indargorri-Naikari H. • Uve Bikoitza

13:00: Autoberezi-Uve Bikoitza • Indargorri

IGANDEAN BARRUAN

09:00: Txipiron-Guadalest • Iganekoak

10:00: Iganekoak-Kirolzaleak • Txipiron

11:00: Amozkibar-C. Bergara • Kirolzaleak

16:00: Soropotroak-Moskis • EH Biterrak

17:00: EH Biterrak-Nekrofilikos • Soropotroak

18:00: Pata Negra-Xurrupak • Nekrofilikos

19:00: Aldoka Maldoka-Osintxu • Xurrupak

20:00: PJS-FAC • Osintxu

IGANDEAN KANPOAN

09:00: Haltzari-Kayak O.J. • Pagomendi

10:00: Pagomendi-Artusamak • Kayak O.J.

11:00: Errotagain-Arloteak • Artusamak

16:00: Etxagi-Eri • Ogizun

17:00: Ogizun-Mongatxurra • Etxagi

18:00: OH Zerezos-A Ze Flaxa • Mongatxurra

EMAITZAK

1. MAILA

ERROTAGAIN-UFALA 8 - 1

MADURA INDUSTRIAS GOL-BILDURBAREK 3 - 3

ARLOTEAK-OZAETA 3 - 0

2. MAILA

HALTZARI-AUTOBEREZI 2 - 3

INDARGORRI-ARTUSAMAK 0 - 1

3. MAILA

KIROLZALEAK-SHAKTALE 2 - 3

AMOZKIBAR-IGANDEKOAK 4 - 3

EH BITERRAK-LA JUVE 1 - 3

4. MAILA

TXIPIRON-XURRUPAK 4 - 3

PATA NEGRA-PATXARAN TEAM 1 - 7

MATXAKATEGI-GUADALEST 3 - 1

KOMENTARIOA

ANTOLAKETA BATZORDEAK JAKINARAZI DIGUNEZ, DATORREN ASTEAN AGIAN EZ DA JARDUNALDIRIK IZANGO KIROLDEGAN EZ BAITA TOKIRIK EGONGO. OHIKO ESKUBALOI, SASKIBALOI ETA ESKOLA KIROLEKO PARTIDUEZ GAIN, GIMNASIA EHRTMIKOA ETA KARATEA ERE IZANGO DIRA ETA EZ DA FUTBITO TXAPELKETARAKO LEKURIK EGONGO. ANTOLAKETA BATZORDEA HASERRE DAGO, TXAPELKETAN DIHARDUTEN 500 HERRITAR INGURUK EZIN IZANGO DUTELAKO DATORREN JARDUNALDIA NORMALTASUNEZ BURUTU.

TALDEAK



Moskis taldea Ibon Muruamendiaraz, Aritz Intxausti, Iban Beitia, Oskar Askargorta, Iñaki Gabilondo, Iñigo Lizarralde, Eneko Ugalde, Unai Urbina, Ion Lasanta, Jabi Arondo eta Germán Muruamendiarazek osatzen dute. Aurtengoa bigarren urtea dute txapelketan eta 3. mailan dabilta. Izenari dagokionez, Simpsons marrazki bizidunetatik atera dute eta taldeko jokalarri guztiak kuadrila berekoak dira. Txapelketa ondo dagoela baina garesti samarra dela diote. Euren helburua ondo pasatzea dela adierazi digute.

Espainiako Gazte mailako pelota txapelketa igandean Bergaran



Asteartean Gipuzkoako taldeak Udal Pelotalekuan entrenatu zuten.

Joseba Arregi hernaniarra garaile Gorko igoeran

Joseba Arregi Iberdrola taldeko txirindulari hernaniarra irabazi zuen 21' 21" denborarekin, joan zen igandean jokatu-tako Gorko XXII. igogera. Bigarren Banestoko David Cancela izan zen eta 3. talde bereko Unai Osa.

Arregi igogera osoan zehar Osarekin borroka izugarria izan zuen, baina

azkenean Osak pot egin zuen eta Arregi erraz irabazi zuen.

Erorketa ikusgarria

Halere, aurtengoan beterranoen lasterketak, zoritxarrez, protagonismo handia izan du. Izan ere José Fernándezek, iazko irabazleak, eta Roberto Vialek azken metrotan elkarren kontra jo zuten eta istripu larria izan zuten. Bi txirindulariak Arrasateko ospitalera eraman zituzten eta jakin izan dugunez, ez zuten zauri haundirik izan.

İnaki Emaldi izan zen irabazle 25' 11" denborarekin eta Jose Carlos Torribio bigarren 22 segundura.

Igandean eguerdiko 12etan Bergarako Udal pelotalekuan Estatuko 22 urtez azpiko taldekako txapelketaren lehen kanporaketa jokatu du Gipuzkoak Aragonen aurka. Guztira bi partidu jokatu dira; banakakoa, lehena; eta binakakoa, bigarrena. Gipuzkoa ordezkatzeko Iker Muruamendiarrak eta Haritz Berraondo izango dira. Hauekin batera, Galartza amezketarra, Urretabizkaia zumarragarra, Larrañaga azpeitiarra eta Otaegi eta Arrieta azkoitiarrak Horiematik hiruk bakarrik jokatu ahal izango dute. "Ustedugu erraz pasatuko dugula kanporaketa. Oraindik ez dut erabaki zeintzuk jokatu duten, egunean bertan erabakiko baitut" adierazi digu Santamaria entrenatzaileak. Bestalde, BKEko pelotariek ostiralean gaueko 10etatik aurrera Arrasateren aurka jokatu dute Deba Arroko txapelketan.



■ **HERRIKO EHIZTARIAK** egun pasa egin zuten joan zen igandean Zuazon (Nafarroa). 42 bat lagun elkartu ziren ehiza denboraldiari amaiera emateko eta txapelketa ere antolatu zuten. Bixente Uribesalgok irabazi zuen eta İnaki Olabarria eta Manuel Aranzabal sailkatu ziren ondoren. Argazkian ikus ditzakezue irabazleak.



■ **EUSKADIKO BOCCIA TXAPELKETA** jokatu zen joan zen ostegunean Labegaraiaeta kiroldegian. Gipuzkoako Dortoka taldeko eta Iruñeko gutxitu fisikoak aritu ziren lehian, 20 kirolari guztira. Aritz Bikuña eta Nerea Egaña bikain aritu ziren eta Espainiako txapelketarako sailkatu ziren.



KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ Bergara-Mutriku

Preferente maila.
Igandea, 16.45. Agorrosin.

◆ Bergara-Miren Bihotza

Lehen erregionala.
Larunbata, 17.15. Ipintza.

◆ Bergara-Zumaiako

Ohorezko mailako jubenilak.
Larunbata, 15.30. Ipintza.

◆ Bergara-Sporting H.

2. mailako jubenilak.
Igandea, 11.30. Ipintza.

◆ Bergara-Lizardi

Emakumezkoak.
Igandea, 10.00. Ipintza.

NESKEN FUTBITOA

◆ Almondigak-Berdin Du

Larunbata, 16.00.
Migel Altuna Institutua.

◆ Guk-Blue Star

Larunbata, 16.00.
Migel Altuna Institutua.

◆ Push Team-Potzu T.Z.

Larunbata, 17.00.
Migel Altuna Institutua.

ESKUBALOIA

◆ Bergara-Don Bosco

Kadete mutilak.
Larunbata, 17.30.
Labegarieta kiroldegia.

◆ Bergara-UPV

Senior mutilak (2. nazionala).
Larunbata, 19.300.
Labegarieta kiroldegia.

◆ Bergara-Aloña Mendi

Jubenil mutilak.
Igandea, 12.15.
Labegarieta kiroldegia.

SASKIBALOIA

◆ Ibili Bergara-Ostadar

Senior mutilak.
Larunbata, 16.15.
Labegarieta kiroldegia.

◆ Alfis Bergara-Askatuak

Junior mutilak.
Larunbata, 11.30.
Mariaren Lagundia.

Joseba López

Motokroseko txapelkun ordea

Joseba Lopezek 20 urte ditu eta Euskadiko motokros txapelkun ordea da. 12 urte zituenetik ari da motokros txapelketetan parte hartzen eta aurtengo denboraldian, azkenengo lasterketarekin irabazteko aukerak izan arren, 2. postuarekin konfirmatu behar izan du 250 cc.ko txapelketan.

- Zer da garrantzitsuagoa motorra ala gidaria?

- Motorrak badu garrantzia, baina motorraren gainean dabilena ez badabil alferrik da. Egoten dira batzuk kristoren motorrekin, eskapean ez dakit zer, zilindroa ikututa e.a... eta gero ezer ere ez. Nire ustez motorraren gainekoa da garrantzitsua.

- Arriskutsua al da motokrosa?

- Jendeak hori pentsatzen du, baina ez da horrenbesteko. Tebistan ematen dituzten motokros irudi guztiak erorketa edo istripuenak izaten dira. Izan ditut istripuak, baina ez oso larriak, urte mordo bat daramat kirol honetan eta ez dut arazorik izan.

- Ze helburu dituzu motokrosean?

- Ibiltzen naizenarekin konformatzen naiz eta mundiala korritzeko go-goia eduki arren, badakit ez dudala egingo. Baina ea aurtengo Euskadiko txapelketa irabazten dudan eta Espainiakoan zerbait egiten dudan.

- Garestia al da mo-

tokrosean ibiltzea?

- Bai, oso garestia. Motorrak bakarrik 800 mila pza. inguru balio ditu, gero jarri katea, olioak, kubiartak, gasolina, irteerak e.a... oso garesti iretzen da. Halere bakoitzak bere aurrekontua du bere aukeren arabera eta laguntzaren bat ere jasotzen dugu.

- Bergaran beti koteak izan dira nagusi. Nola dago motorraren mundua?

- Ba, apurka-apurka ibili. Motokrosean Bergaran 5 lagun gabilta, baina Espainia mailan nabarmentzen ez garenez, ez


gara kotxe gidarien moduko ezagunak. Aurtengo jende gaztea hasi da eta Bergaran lasterketa bat antolatzeke asmoarekin gabilta. Horretarako laguntza beharrezkoa da eta toki aproposa Fagorrek San Juanen duen lursaila izango litzateke.

- Zer esango zenioke motokrosean hasi nahi duenari?

- Eskua hartzeko 2. eskuko motorra erosteko eta gero entrenatzera joan, lizentzia atera, eta poliki-poliki joatea da onena.

- Datorren urtean txapelkun?

- Ahaleginduko gara.



"Datorren urtean Euskadiko txapelketa lortzen ahaleginduko naiz"

"Bergaran lasterketa bat antolatzeke asmoz gabilta"



C.D. Bergarako infantil taldea (1973)

Argazkian agertzen diren gazteek C.D. Bergarako infantil taldea osatzen zuten 1973 urtean. Entrenatzailea "Maxi" omen zen eta dirudienez talde honek goi mailako futbola egiten zuen garai haretan. Beharbada bere arerioek "beldur eszeniko" famatua somatuko zuten Bergaran jokatzearan...

Argazkia Seminarioan aterata dago, orain urte batzuk bertan jokaten baitziren Bergarako harrobiko taldeen partiduak. Teilatuan keinuka ari diren mutikoak nortzuk diren asmatzerik izan ez dugun arren, horra hor futbolisten izenak. Ezkerretik eskumara:

Zutik: Javier Igartua, Luis Goenaga, Mariano Jauregi, Juan Carlos Zengotitabengoa, Iñaki Alberdi, Zornoza "Txorno", Martin Zangitu eta Joaquín Soto.

Makurtuta: Jesus Mari Madariaga, Francisco Javier Agirre, Sabin Zabaleta, "Txiki" Lakunza, Paulino Arriola, Iñaki Agiriano eta Manu Moreno.

Argazkia: Joaquín Soto

ZUBIETA
elektragarintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



umelaga
JATETXEA

San Antonio,
5 BERGARA
☎ 76 20 21

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!



GOGORATU!! ORDAINKETA ERRAZTASUNAK ETA %50 ARTEKO BEHERAPENAK ISTRIPUAK EZ IZATEAGATIK

Inoiz ez du aseguru etxe batek halako aukera zabalik eskaini. MAPFRE MUTUALIDAD-i esker, hemendik aurrera izango duzu zer aukeratu. Edozein direla ere zure beharrak eta nahiak, zure autoarentzako neurriko aseguruak aurkituko duzu beti. Hala seguru izan zaitezten. Seguru eta babestuta. Zure atzean auto-asegurutan buru den etxea izango duzulako.




MAPFRE
MUTUALIDAD

Simon Arrieta, 3 BERGARA
☎ 76 28 79 / 76 18 80

ALZAS ELEKTRAGINTZA

Korronte alferno eta
zuzeneko makina
elektrikoen eta abiada
haundiko induzituen
konponketa eta
bobinaketa



Antigua auzoa, 3 ☎ (943) 76 64 14 Faxa: (943) 76 62 99 20577 ANTZUOLA

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu 24 behea BERGARA (Gipuzkoa). Telefonoa eta faxa: (943) 76 30 57



FILA modeloa



NALIA modeloa



ONDA modeloa



OXFORD modeloa



ACQUA modeloa



SAVOY modeloa

ADI ORAIN!! Eskaintza bereziak apirilaren 15era arte

FAGOR



ORAIN
%30
GUTXIAGO

Sukaldeko
altzari berriak
jartzeko
6 arrazoiak